

MITASUNAREN INDARRA

Ni Michael naiz eta hemezortzi urte ditut. Euskal Herriko mendien arteko herritxo txiki batean bizi naiz, ur garden eta distiratsuzko errekez inguratua, mendien artean, laku eder baten inguruan. Baserri eder bat dut bizileku, nire gurasoekin batera. Herritxo honetan, denak ezagutzen dugu elkar, baserri zahar batean bizi den agure bat izan ezik. Herritarrek diote ez dela inor bizi, besteei, gauero teilatuko zuloetatik agure zahar batek, suge begiekin begiratzen duela.

Baina niri ez zaizkit gauza horiek axola, maiteminduta bainago. Goizero, Mirenengan pentsatzean, kilimak sortzen zaizkit sabelean eta gorputz guztian zehar ondoren, une latzetan beragan pentsatzeak bakarrik pozten nau, ez dakit zer den zeruan egotea, baina ez dut uste maitemindua egotea baino hobe denik.

Kontatu nahi dizuedan istorioa, lehengoan hasi zen, arrats gorri horietako batean. Belarretan etzanda nengoen, orain uda baita, oso ondo egoten zen han botata, sartaldera begiratzuz. Hodeiei begiratzen nien, zerbait esango zidaten itxaroten, han eta hemen, bihotzak ikusten nituen, eta irribarre egiten nuen. Etxera itzultzeko garaia zelakoan altxa nintzen, baina altxa bezain laster, haize freskozko bolada batek hotzikara eragin zidan, eta ingurura begiratu nuen, baina ez zegoen inor. Etxera bidean, behin eta berriz jotzen ninduen haize bolada hotz hark. Azkenik etxera iritsi nintzen, bertan zeuden aita eta ama, niri itxaroten afaltzen hasteko. Buruan bueltak neukan oraindik haize boladarena:

- Zer duzu, seme?- bat-batean, amak*
- Ez, ezer ez.*

Burua astindu eta afaltzen bukatu bezain pronto, ohera joan nintzen. Baina ez nuen ideia hura burutik kendu gau osoan, eta ez nuen ondo lo egin. Zer esan nahiko zuen hark?

Hurrengo egunean, aita eta ni lakura joan ginen, afaria arrantzatzerara. Bizpahiru amuarrain eta bibote luzedun arrain horietako bat harrapatu genituen. Berriro sentitu nuen haize boladatxo.

- Aita, zuk ere sentitu al duzu hori?- galdetu nion kezkatu.
- Zer seme?-berak.
- Haize boladatxo hori.
- Zer haize bolada?- eta aurpegian inurriak banitu bezala begiratu zidan.- Ondo al zaude? Egiten duen beroarekin!

Pentsakor geratu nintzen, denbora batez, eta nire onera etortzean, etxera joan ginen.

Etxean, harrigarria bada ere, sentitzen nuen haizetxo hori, eta buelta bat ematera irten nintzen. Ez dakit zergatik, aurrera joaten nintzen, eta konturatzera, basoan nintzen. Buelta eman nuen, baina norbaiten pausoak entzuten nituen, atzera begiratzen nuen behin eta berriz, baina ez zegoen inor. Norbaiten hatsa sentitzen nuen nire golkoan, eta gero eta bizkorrago ematen nituen pausoak. Bat-batean, belduraren beldurrez, korrika hasi nintzen, ez nekien nora joan, baina hala ere korrika nindoan. Halako batean, hankaz lurra jo eta lurrera erori nintzen. Pausoak eta arnasestuak gerturatu eta gerturatu ari ziren, baina gelditu ziren, eta isiltasun osoz bete zen basoa. Hontzaren ulua beste soinuak ez zen basoan, baina, hutsetik sortua bezala, esku batek heldu zidan... konortea galdu nuen.

Esnatu nintzen, bai, baina dena ilun eta isil zegoen. Goitik zetorren argi izpi ahul bat besterik ez zen ikusten. Etzanda nengoen, geldu, isil. Minutu batzuen buruan, nire onera etortzean, begiak iluntasunera ohituak nituen, ingurura begiratu nuen, behin eta berriz, baina lau horma besterik ez nituen ikusten, lau horma beltz. Baina han, gelaren bazter batean, bai, hura ate bat zen!!! Korrika abiatu nintzen aterantz, eta ireki egin nuen, baina alferrik, lehen bezain ilun zegoen dena. Zerbait arraroa sumatzen nuen, dena oso lasai zegoen, lasaiegi, nire ustez. Han zerbait gertatzen zen, han hemen goiko aldeko zuloetatik sartzen zen argi ahulari esker ikus nezakeen pasilo bat, eta haren amaieran, beste ate bat. Korrika igaro nuen korridorea, baina atea irekitzean, hasierako gelan nintzen, hura amesgaizto bat zen!! Berriro saiatu nintzen, ate batetik atera eta

bestetik sartu, baina gela berean nintzen. Berriro, eta berriro, eta beste behin saiatu nintzen, baina beti gela berean bukatzen nuen. Azkeneko aldiz saiatu nintzen, baina zer zen hura? Bigarren ate bat!!! Hara joan nintzen, ireki, eta nire alaitasunerako, egongela handi bat zegoen han, baina altzairu guztiak amaraunez josiak zeuden, zaharrak eta zulatuak, beldur ikaragarria ematen zuen leku hark. Etxe hartan ez nengoen bakarrik, norbaiten ahotsak entzuten nituen ate zahar baten atzean. Ez zen leku hartako beste atearik bezalakoa, hura zerbait zainduagoa zegoen, norbaitek erabili balu bezala, eskua luzatu nuen atea irekitzeko, baina atea ukitzean, nire gorputzean zerbait arraroa sentitu nuen, inurritegi bat nire besotik gora igotzen ariko balitz bezala, eskua atetik urrunditu nuen, eta inurritegi hura berriro besoan beheara joan zen, bat-batean, tristura sentitu nuen, nire bizitzako unerik latzenak, burura etortzen zitzaizkidan, nik ahaztu nahi nituen, baina ezin nuen, "nire arreba, hiltzen ari zen, eta zuri-zuri zegoen" ezin nuen gehiago, begiak itxi eta negarrez hasi nintzen:

- Zer gertatzen zait. ZER GERTATZEN ZAIT!!!!!!!!!!!!!!

Berriro nuen nire arreba buruan, zuri, begiak erdi itxirik, eta bere azken hitzak esaten: "adorea, Michael, adorea" ezin nuen hura ahaztu, ezin nuen. Nire aurrean zegoen atea ireki zen, hots beldulgarri bat ateraz.

Norbait zegoen leiho ondoan, eserita, kanpora begira. Bizkarra ikusten nion, eta ile zuri eta luzea. Beragana urreratu nintzen, besoa aurrean nuela, kontu handiz nindoan, hotsik atera gabe, agure hura ikusteko. Oso gertu nengoen, ia ukitzeraino, eta , ez dakit zer arrazoigatik, baina, ukitu egin nuen, orain ez zen nire arreba ohean etzanda zegoena, nire aita baizik, oso gaizki zegoen, oso zuri. Begiak gorrituak zeuzkan, eta ahoa irekia. Ezin nuen, lurrera erori nintzen, belauneko, negarrez. Ez nekien zergatik azaldu zitzaidan irudi hura, ez baitzen inoiz gertatu. Agian irudi hark nire beldurra adierazten zuen, nire izua. Malkoak lehortu nituen, gora begiratu ere bai, baina aulkian ez zegoen inor, ke ilun bat besterik ez. Baina.... hantxe zegoen minutu bat lehenago!!! Nora joan zen? Gela hartako leihotik begiratu nuen, baina ez zer ezer ikusten, dena ilun zegoen. Handik egongelara atera nintzen, nekatuta nengoen, baina

ezin nuen etzan, ez une hartan, ate guztiak ireki nituen, baina hango ate batetik sartu eta bestetik ateratzen nintzen, lehengo egoera berean nengoen, baina orain egongelan nengoen. Ahotsak entzuten nituen, sufrimendu ahotsak. Oihua ziren batik bat, besteak beldurtuta zeudenen ahotsak. Soinu guztiak mina adierazten zuten, oinazea. Hango sofa zaharretako batean etzan nintzen lo hartu eta nire etxe ohean azaltzeko, baina ezin nuen, ezin nuen lo hartu egoera hartan. Hain irudi latzak ekartzen zizkidaten ahots haiek, ezin nuen lo egin. Handik altxa nintzen, alde guztietara begiratzen nuen, baina ez zen aldatu. Agian, argitasuna behariko nuen handik ateratzeko, poza. Denetan pentsatu nuen, baina ezin nuen tristura sentimendu hura gainditzeko pentsamendu alairik gogoratu. Baina bat-batean, une latzetan laguntzen ninduen gauza bakarrarengan pentsatu nuen, Mirenengan. Begiak itxi eta beragan pentsatu nuen, eta bat-batean, haize bolada fresko batek jo ninduen. **KANPOAN NINTZEN!!!**, agure zaharraren etxe aurrean, eta etxe hartako leiho bakarrera begiratu nuen, eta itzal bat ikusi nuen leiho aurretik igarotzen.

Une hartan, maitasunak zelako indarra zuen ohartu nintzen, momentu hotzetan berotzen zaitu, une zailetan lagundu,... ezerk ezingo luke nire maitasuna ahaztuarazi, munduko gauzarik politena baita. Bere ile horia, irribarre gozo hori, ahaztezina da. Beti jarraituko dut maitatzen.

Ettxera iritsi nintzenean ama gerturatu zitzaidan kezkatu:

- Non ibili zara gaueko ordu hauetan? Zerbait gertatu al zaizu?

Irribarre egin nuen, eta jarraian ohera joan nintzen.

Egun hartatik aurrera, haize boladatxoarekin batera izen bat entzuten nuen;

MIREN